

Cabacas omentzeko ostiraleko ekitaldiaren harira EAJri jarrera alda dezala eta Justizia eta Erreparazioaren eskakizunak bereak egin ditzala eskatu dio EH Bilduk

Ekitaldia polizia ereduaren inguruan eztabaidea sakona irekitzeko baliogarria izan dadin
eskatu du Aitziber Ibaibarriagak

Datorren ostiralean, familiak eskatuta, Udaletxeko Arabiar aretoan Iñigo Cabacas oroitzeke eta omentzeko ekitaldia ospatuko da. Aitziber Ibaibarriagak iragarri du EH Bilduren zinegotziek “Iñigo Justizia” lelodun kamisetak eramango dituztela ekitaldian.

EH Bilduren bozeramaleak gogoratu du Cabacasesen heriotza legegintzaldi honen unerik zail eta gogorrena izan dela. Ibaibarriagak ostiraleko ekitaldia hiru urteko atzerapenarekin datorrela azpimarratzeaz gain, ekitaldiak berak 2012an Cabacasekin **jazotakoa argitzeko, arduradun guztien izenak ahalik eta lasteren mahai gainean jartzeko eta polizia ereduaren inguruan eztabaidea sakona irekitzeko** baliogarria izan behar dela aipatu du.

“Egun ez dago zalantzarik nork hil zuen Iñigo Cabacas eta gertaerak nola suertatu ziren, ostiraleko ekitaldia horren adibide argia da, aldiz, gauzak ez dira beti horrela izan” adierazi du Ibaibarriagak. Familiak Udalak bezalako instituzioengandik jasotako tratu eskasa gogoratzeaz gain, EAJ, PP eta PSOEk sinatutako adierazpen instituzionala ere gogora ekarri du. Aipatutako hitzarmenak Cabacasesen heriotza kirolaren inguruan dagoen bortizkeriaren baitan kokatzen zuen “ordea, mundu guztiak zekien Iñigo Ertzaintzaren pilota batek hil zuela”.

Hau guztia dela eta, EH Bilduren bozeramaleak espero du ostiraleko ekitaldi instituzionala EAJ eta gainontzeko alderdien jarrera aldaketaren ondorio izatea, justizia eta erreparazio eskaerekin bat egiten has daitezen eskatuz; honekin batera ere, 2012ko apirilaren 11n egindako adierazpen instituzional lotsagarria baztertu dezatela espero du, “hau egingo ez balute, ostiraleko ekitaldia udal hauteskundeei begirako aurpegi garbiketa hutsa baino ez litzateke izango”

EH Bildu espera que acto del viernes por Cabacas suponga un cambio de actitud del PNV a quien pide se sume a las demandas de justicia y reparación

Ibaibarriaga espera que acto sirva para impulsar un debate sobre el modelo policial existente

El próximo viernes, a petición de la familia, se celebrará en el salón Árabe del Ayuntamiento un acto en recuerdo y homenaje a Iñigo Cabacas. Aitziber Ibaibarriaga ha anunciado que los y las concejales de su grupo acudirán portando camisetas con el lema “Iñigo Justizia”.

La portavoz de EH Bildu, tras recordar que la muerte de Cabacas “ha sido el momento más duro de la legislatura”, ha señalado que este acto, “que viene con tres años de retraso”, tiene que servir de impulso a fin de que de forma prioritaria se **aclare lo sucedido**, se depuren las responsabilidades penales y políticas existentes, se **ponga sobre la mesa los nombres de los culpables y**, lo que es más importante, **se abra un debate en torno al modelo policial** con el fin de que se readecue a la nueva realidad política.

“Hoy ya nadie duda de quién y cómo mataron a Iñigo Cabacas, y el acto del viernes es prueba de ello, pero no siempre esto fue así”, ha señalado Ibaibarriaga, quien a renglón seguido ha recordado el trato indigno que desde instituciones como el Ayuntamiento se dieron entonces a la familia, así como la indignante declaración institucional firmada en exclusiva por PNV, PP y PSOE, hoy todavía en vigor, que achacaba de forma interesada la muerte de Cabacas a la violencia que rodea el deporte, “cuando todo el mundo era consciente de que a Iñigo lo había matado un pelotazo disparado por la Ertzaintza”.

Por ello, la portavoz de EH Bildu espera que el acto institucional del viernes sea el inicio de un cambio real de actitud por parte del PNV y del resto de partidos que asistan a éste, a los que emplaza a sumarse a las demandas antes mencionadas de justicia y reparación; y a retirar o dejar sin validez la “vergonzosa” declaración institucional del 11 de abril de 2012. “Lo contrario sería entendido como un lavado de cara ante la cercanía de las elecciones municipales”.